

PRIMERO MAIATZAREN DE MAYO LEHENA

ERREIBINDIKATZEN DUEN SINDIKALISMOA, 2010 INOIZ BAINO BEHARREZKOAGOA

Aurten ere ospatzekoak gara Maiatzaren Lehena, langile-klasearen eguna. "Ospatu" diogu, eta ospakizun kontzientea esan nahi dugu, aldarrikapenez betea, langileok prest egon behar baitugu ugazaba eta gobernuei aurre egiteko, krisiaren eragin latzenak jasaten dituztenei elkartasuna eskaintzeko eta klase ikuspuntutik jokatzeko, aberastasunaren banaketa hobea defenditzearren.

Aurtengo Maiatzaren Lehena ez da azken aldiko mobilizazio egun bakarra; izan ere, iazko maiatzaren 21ean egin genuen greba orokorretik hona, mobilizazio ugari egin baitugu euskal gehiengo sindikaleko kideekin batera, eredu ekonomiko, sozial eta laboral berri bat eskatzeko.

Krisiak kalterik handiena langile-klaseari eragiten dio. Krisia finantza-burbuila lehertzearekin batera sortu zen, botere ekonomikoek neurrigabe espekulatu ostean eta botere politikoaren kontrol hutsalaren ondorioz. Finantzetatik ekonomia errelera hedatu denean, krisiak milaka eta milaka langile zigortzen du, lan- eta bizi-baldintzetan: batzuk lan merkatutik kanporatzen ditu; besteen lan-baldintzak xantaipean jartzen ditu, eta beharrik handiena duen jendearentzako babes soziala urritzen ari da.

Politikak aldatzeko asmorik gabe, ugazabek eta botere ekonomikoek murrizketa latzak ezartzen dituzte beren irabaziei eusteko; era berean, krisia eragin duten berberak egundoko milioikadak jasotzen ari dira.

Politikariek baztertu egin dute beren eginbehar soziala, eta banketxeen, patronalen eta interes ekonomikoen menpe jarri dira; murrizketak egiten jarraitzeko asmoa dute. Bidean utzi duten beste zerbaitek, zerga- eta gizarte-politika justuago eta progresiboagoa egiteko helburuak alegia, garbi adierazten du administrazioen joera neoliberalak.

Erreformak eta "elkarrizketa soziala". Ezarri nahi dituzten erreformek agerian uzten dute gobernuen borondatea dela langile-klasearen eskubide laboral eta sozialei erasotzea. Pentsioen erreformaren xedea —ordaina jasotzeko aukera zailduz eta lehenago ere urria zena gutxituz—, sistema pribatizatu nahi dute, banketxeen eta aseguroen mesedetan. Lan merkatuko erreformarekin, berriz, kaleratzea merkeagoa izango da eta lan-harremana, gero eta eskasagoa, ugazaben nahierara.

Negoiazio kolektiboan egitekoak diren erreformaren helburua hitzarmenak Madrilen zentralizatzea da, hitzarmen miserableekin ahuldu eta benetako negoziazio-esparruak, non indar-erlazioa langileen hain kontrakoa ez den, gainditzeko. Hau guztia "elkarrizketa soziala" delako horren baitan ari dira jorrotzen, bai espainiar estatuan, bai Hego Euskal Herrian; parte hartzeko prest dauden eragileek, proposamenak onartu eta bake soziala ematearen truke, dirua erruz jasotzen dute.

ELA eredu injustu honen aurkako jarrerari eutsiko dio. Politika hauek alda daitezten salatu egingo ditugu eta mobilizatzen jarraitzeko asmoa dugu. Gainera, inoiz baino gehiago negoziazio kolektiboa izango da gure lehentasun sindikala, ugazaben mehatxu eta xantaiari aurre egiteko, soldatak hobetzeko eta kaleratzeen eta prekaritatearen aurka borrokatzeko.

Maiatzaren Lehen hau egun egokia da ere aldarrikapen bat egiteko: politika ekonomiko, laboral eta sozialak Euskal Herrian erabaki behar dira. Horregatik eskatzen dugu Lan-Harremanen eta Gizarte-Babesaren euskal esparrua, gure eskubideak hobeto defenditu ahal izateko.

Arrazoi ugari dugu; aurre egiten duen sindikalismoa, borrokatzen duen sindikalismoa, inoiz baino behar handiagoa da.

GORA LANGILE-KLASEAREN ELKARTASUNA! GORA MAIATZAREN LEHENA!

Patronal, banca y gobiernos: chantaje y saqueo

**INOIZ BAINO GEHIAGO
SINDIKATUA** *langileekin*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

PRIMERO DE MAYO MAIATZAREN LEHENA

EL SINDICALISMO REIVINDICATIVO, 2010 MÁS NECESARIO QUE NUNCA

Volvemos a festejar el 1º de Mayo, día de la clase trabajadora. Y es que hay más motivos que nunca para celebrarlo desde una posición reivindicativa ante patronal y gobiernos, desde un compromiso de solidaridad con quienes son más perjudicados por la crisis y, también, desde una perspectiva de clase para exigir un mejor reparto de la riqueza.

La celebración de este 1º de mayo se encuadra en el intenso período de movilizaciones que, desde la huelga general de pasado 21 de Mayo, ELA ha canalizado junto con la mayoría sindical vasca en demanda de un nuevo modelo económico, social y laboral.

La crisis sigue castigando sobremanera a la clase trabajadora. Una crisis generada por la burbuja financiera y la especulación sin límites de los poderes económicos y que no ha tenido ningún control ni freno por parte del poder político. En su traslado a la economía real, la crisis sigue perjudicando a miles y miles de trabajadores y trabajadoras en sus condiciones de vida y trabajo, expulsando del mercado de trabajo a unos, chantajeando las condiciones de trabajo a otros y reduciendo las coberturas sociales a la gente más necesitada.

Sin cambio de orientación en la política, la patronal y los poderes económicos vienen aplicando ajustes drásticos para mantener sus márgenes de beneficio, además de las enormes inyecciones de dinero a quienes precisamente están en el origen de la crisis. La política ha renunciado a su función social y se ha puesto al servicio de la banca, patronal e intereses económicos para seguir con los ajustes. También la renuncia a establecer una fiscalidad y una política social más justa y progresiva cualifica la orientación neoliberal de las distintas administraciones.

Las reformas y el “diálogo social”. Las reformas que plantean son un claro exponente de la opción hecha por los gobiernos para atacar los derechos laborales y sociales de la clase trabajadora. Con la reforma de pensiones, dificultando el acceso y mejorando las cuantías-ya de por sí muy pobres-, buscan la privatización del sistema en beneficio de la banca y los seguros.

La reforma del mercado laboral acarreará despidos más baratos y una precarización sin límite en manos de la patronal. Y la reforma de la negociación colectiva busca centralizarla, para debilitarla con convenios de miseria y alejarla de los marcos de negociación reales donde hay correlación de fuerzas. Todo ello aderezado en el ámbito del llamado “diálogo social”, tanto en el ámbito del estado español como en Hego Euskal Herria; donde a cambio de aceptar estas propuestas y ofrecer paz social, los partícipes reciben enorme financiación.

En ELA nos reafirmamos en la lucha contra este modelo. Seguiremos articulando la denuncia y la movilización para forzar un cambio de estas políticas. Además vamos a fortalecer la negociación colectiva como prioridad sindical para sacudirnos las amenazas y chantajes de la patronal, para mejorar salarios y luchar contra los despidos y la precariedad.

Este 1º de mayo es una fecha propicia también para reivindicar que las políticas económicas, laborales y sociales se decidan en Euskal Herria. Por ello reclamamos el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social, para defender mejor nuestros derechos.

Son muchas razones para que el sindicalismo reivindicativo sea más necesario que nunca.

¡VIVA LA SOLIDARIDAD DE LA CLASE TRABAJADORA! ¡VIVA EL 1º DE MAYO!

Patronal, banca y gobiernos: chantaje y saqueo

**INOIZ BAINO GEHIAGO
SINDIKATUA** langileekin

ELA
EUSKAL SINDIKATUA